



zientziaren
ELHUYAR
komunikazioa

Dosierra

Agenda 21

**Agenda 21:
herriek salbatuko dute mundua.** D:02

**Tokiko Agenda 21:
urratsez urrats bidea eginez.** D:08

**Agenda 21,
Euskal Herrian ere martxan.** D:14

Europari begira. D:26



Mundu hobe batekin amestea ez da nahikoa. Ingurumen-arazorik ez egotea, gizartean inor ez baztertzea, ekonomia sendoa izatea... geure esku ere badago. Horretarako, gutako bakoitza auzoa edo herria hobetzen saiatzea komeni da.

Baina jendearen ahalegina bateratu eta zuzendu beharra dago etekinik atera nahi bazaio; bada, asmo horrekin sortu zen Agenda 21 dokumentua, tokiko agintariek bide horretan lagunduko dien tresna bat izan dezaten, besteak beste.

Agenda 21:


herriek salbatuko dute mundua

Nagore Rementería Argote
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



ARTXIBOKOA

Agenda 21 garapen jasagarria errazteko dokumentu gisa jaio zen, 1992an Rion egindako gailurrean. Izan ere, garapen jasagarriaz hitz egiten urteak eman arren, ez zegoen kontzeptua praktikara nola eraman zehatz azaltzen zuen lanik. Bada, helburu horrekin jaio zen Agenda 21.



Jasangarritasunaren oinarriak beretzat hartu zituen Agenda 21en dokumentuak. Hala, bi printzipio nagusi ditu: alde batetik, ingurumena, ekonomia eta gizartearen uztartu beharra, eta, bestetik, tokiko jasangarritasunaren bidez lor daitekeela jasangarritasun globala.

● Ingurumenaren ● aldetik soilik ikusita, hankamotz geratzen da Agenda 21.

Uztarri berean hiru buru

Ingurumenak, ekonomiak eta gizarteak sistema integratua osatzen dute toki guztietan. Ekonomiaren garapenak baliabide naturalen beharra du eta, ondorioz, ingurumenari eragiten dio. Bestalde, biztanleen beharrak asetzea du helburu jarduera ekonomikoak, eta horren gorabeherek eragin zuzena daukate gizartearen bizi-kalitatean. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen da hiru alor horiek uztartu eta bakarria balira legez tratatzea.

Beraz, Agenda 21 ingurumenaren aldetik soilik ikusita hankamotz geratzea da. Programaren lorpen handienetako bat ekonomia- eta gizarte-gaiak ingurumenaekin zuzenki lotuta daudela aitortzea da; horregatik, hiru dimentsio horiek hartu behar dira kontuan edozein plangintza eratzekoan.

Garapena eta jasangarritasuna elkarren etsai?

Garapen jasangarriaren definiziorik ezagunena 1987an eman zuen Brundtland komisiok. Definizio horren arabera, garapen jasangarria da “gaur egungo beharri-zanak asetzen dituen, etorkizuneko belaunaldien beharri-zanak asetzeko gaitasuna kolokan jarri gabe”. Txosten horretan bertan, ingurumenaren babesa, gizartearen garapena eta hazkunde ekonomikoa gai bakartzat hartzea eskatzen zen.

Baina ez da batere kontzeptu erraza barneratzeko; izan ere, gaur egungo bizimoduan termino kontra-jarriak dirudite garapenak eta jasangarritasunak. Garapena hazkundearen sinonimotzat hartzen dugu, eta ekonomiaren helburua mugarik gabeko hazkuntza da. Hazkuntzak, ordea, behar-beharrezko ditu baliabide naturalak, eta horiek mugatuak dira. Horregatik, garapen jasangarria zer den ulertzeko, ezinbestekoa da garapena eta hazkundera bereiztea.

Azken batean, garapena bizi-kalitatea hobetzearekin lotzen da, baina baliabide naturalak ahalik eta gutxien hondatuz.

Gizarte-mailan, berdintasuna da helburu nagusia, baina, herri bakoitzeko gizartearen egoera eta izaera bereziak izanik, ekintza desberdinak bultzatzen dira berdintasuna lortzeko. Dena dela, funtsezkoena gizartearen oinarritzko beharrak asetzea da, baina zaila da oinarritzko behar horiek zeintzuk diren zehazten; ez dirudi herri aberatsen oinarritzko beharrak eta herri pobreenak berdinak direnik. ➔



Etorkizuneko belaunaldiek ere badute eskubidea geuk jaso ditugun ondare naturala eta kulturala ezagutzeko.

Horretaz gain, kontuan izan behar da Agenda 21en helburua munduko jasangarritasuna dela. Hori dela eta, ez da onartzen munduko gainerako biztanleei kalte egin diezaiekeen programarik, nahiz eta tokiko biztanleentzat oso onuragarria izan. Hala, tokian tokiko ekonomia bultzatzea, ezkutuko ekonomia eragozte eta langileen eskubideak bermatzea komeni da, besteak beste.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, dibertsifikatzeak egonkortasuna ematen duela ikusi da, krisi-garaian batez ere. Horregatik, sektore guztiak bultzatzea komeni da.

● Agenda 21en indar berezia ematen zaio ingurumen-hezkuntzari eta natura errespetatzeari.

Bestalde, produktuak ematen duten zerbitzuaren arabera baloratzea ere garrantzizkoa da, izan ere, lehen-gai gutxiagorekin denbora gehiago irauten duten produktuak ekoizita baliabide naturalek ez lukete hain presio handia nozituko.

Baliabide naturalen ustiapena mugatzea beharrezkoa da ingurumena babesteko, baina ez tokikoa bakarrik, bertakoa babesteko kanpoko baliabide naturalak erabiltzen badira ez baitaio inongo mesederik egiten munduko ingurumenari. Horregatik, mundu mailan, indar berezia ematen zaio ingurumen-hezkuntzari eta natura errespetatzeari.



Herri bakoitza jasangarri eginez lortu nahi da mundu jasangarriagoa.

G. ROA

Beraz, jasangarritasun globala lortzeko tokiko jasangarritasuna bilatu behar dela aldarrikatzen du dokumentuak, munduko herri guztiak jasangarri izanik bakarrik lor daitekeela mundua jasangarria izatea. Azken finean, arazo globalak tokian tokiko arazoak ere badira, eta alderantziz. Horregatik erabiltzen da goiburua gisa “pentsatu orokorrean, jardun tokian”.

Agenda 21en jaiotza

Ingurumenari eta Garapenari Buruzko Nazio Batuen Konferentzia Rio de Janeiron antolatu zen 1992an. Agenda 21 konferentziaren ondoren kaleratutako dokumentu nagusietako bat izan zen; eta, besteak beste, garapen jasangarriko bidean hainbat eragileren eginkizuna zein zen zehazten zuen. ➔

Agenda 21 en aipatzen diren eragileetako batzuk lane-rako prest agertu ziren berehala: udalerrietako agintariak ziren. Munduko ingurumenaren alde udalerriek egin zezakeen lana aintzat hartu zuten, eta, hala, Tokiko Agenda 21 (TA21) sortu zen.

Ahots guztiek lekua izatea du helburu Agenda 21ek, eta partaidetzak garrantzi berezia du prozesu osoan.

Stefan Kuhn Europako Tokiko Agenda 21 Programaren zuzendaria da ICLEIn (Garapen Jasangarriaren Ezarpenerako Tokiko Gobernuen Europako Idazkaritza). Haren esanean 90eko hamarkadaren hasieran, tokiko agintariak ingurumenaren babesean izan zezaketen botereaz ohartzeko hasiak ziren, “eta gustura hartu zuten TA21ak eratzeko agindua”. Izan ere, Agenda 21en dokumentuak dei egiten zien tokiko gobernuei haren jarraibideak bere egin zitzaizkien.

Gobernu-maila guztietan

Beste eragile batzuk ere aipatzen ditu dokumentuak, nazio-mailako agintariak kasu, baina, horiek ez zuten hain gogotsu hartu Agenda 21ak eratzeko deia. Stefan Kuhnen ustez, gobernu nazionalak zituzten mugez ohartu ziren orduan, baina baita tokiko gobernuekin lan egiteak eskaintzen zizkien aukerez ere.

Dena dela, koherentzia minimo bat nahi bada, gobernu nazional bakoitzak ere bere Agenda 21 izan beharko

Nolakoa nahi duzu izatea zure herria?

Nork ezagutzen du udalerrria bertako herritarrek baino hobeto? Inork ez, argi dago. Horregatik da hain garrantzitsua haien iritzia aintzat hartzea; bai herriaren egoeraren diagnosia egiterakoan, bai egin beharreko ekintzak aukeratzeko orduan.

Tokiko biztanleek erabaki behar dute nolako etorkizuna nahi duten. Eta, zenbaitetan, hartutako erabakiak ez dira politikarien nahiekin bat etortzen. Baina, Tokiko Agenda 21 ezartzeko konpromisoa hartuz gero, prozesuan zehar hartutako erabakiak betetzeko ardura ere badute agintariak.

Kontu handia izan behar da, eta foroetan hartutako erabakiak bete; bestela, parte-hartzaileek motibazioa galtzen dute. Nork jarraituko du foroetara joaten adostutako ekintzak gauzatzen ez badira?

luke. “Gobernu-maila guztietan ezarri behar da, aldi berean gainera. Baina maila bakoitzerako formarik egokiena bilatu behar da”.

Kuhn jaunaren iritziz udalerriak baino goragoko gobernu-mailetan Agenda 21 ezartzeko trabarik handiena da jendearen parte-hartzea bermatzea ia ezinezkoa dela. Izan ere, ahots guztiek lekua izatea du helburu Agenda 21ek; horregatik, partaidetzak garrantzi berezia du prozesu osoan zehar.

Dena dela, “badira garapen jasangarria bilatzen duten eskualde-mailako estrategiak, esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegokoa, Bavariakoa, Erresuma Batuko zenbait eskualdetakoak... Eta baita nazio-mailako jasangarritasuna bilatzen dutenak ere, Australia, Alemania edo Holandakoa kasu”. □

Agenda 21 garatzeko herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. Izan ere, nork ezagutzen du herria bertako biztanleek baino hobeto?



ARTIBOROKAK

Tokiko Agenda 21: urratsez urrats bidea eginez

Nagore Rementeria Argote
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Rion 1992an Agenda 21en dokumentua kaleratu zenetik, jarraitu beharreko metodoa egokitzeko saiakera ugari egin da. Herri gehienek bide berari jarraitu diote funtsean, baina herri bakoitza berezia denez, Tokiko Agenda 21ek tokiko ezaugarrien arabera izan behar du.

Euskal Herrian, esate baterako, nabarmena da hiriguneek eta herri txikiek zerikusi gutxi dutela, gizartearen egitura eta egon daitekeen problematika bera ere desberdina baita batzuetan eta besteetan. Horregatik, kostaldeko herri txiki batek, seguruenik, zerikusi gehiago izango du ehunka kilometrora dauden herri arrantzaleekin hamar kilometro eskasera duen hiriburuarekin baino.

Guztiek oinarri bera

Dena den, herri guztiek bide berari jarraitzen ez dioten arren, TA21 ezartzeko orduan, antzeko pausoak ematen dituzte. Gehienetan, prozesua Aalborg-eko Gutuna sinatzean hasten da. Hala, udalerrri sinatzaileak jasangarritasunaren alde lan egiteko konpromisoa azaltzen du.



Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuan, pauso bakoitza da garrantzitsua.

ARTIBOXCOA

Funtsean bost fase bereiz daitezke: lehenengo, prozesua planifikatzen da; ondoren, diagnosa egiten da (diagnosiak tokiko ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen egoera islatzen du); eta, horren arabera, ekintza plana zehazten da. Ekintza-plana martxan jarri eta aldi berean azkeneko fasea hasten da, kontrola eta jarraipena.

Berez amaierarik ez daukan prozesua behar luke izan: adostutako ekintzak burutu ahala, ekintza berriak planifikatzen dira. Hala, ekintza batzuk burutu eta horiekin jarraipena egiten zaien bitartean, beste batzuk adosten dira.

Toki askotan Agenda 21en ardura ingurumen-sailaren esku geratzen da. Tamalez, sail horrek ez du izaten hirigintzan eta lurralde-antolakuntzan eragiteko adinako indarrik, eta, ondorioz, herritarrek adostutako ekintzak paperean geratzen dira.



ARTXIBOKOA

Gizarteko partaide diren neurrian, haurrek ere badute zeresana.

Horregatik, beharrezkoa da prozesua aurrera eramateko konpromiso sendoa izatea hasiera-hasieratik. Gidaritza alkatetzak hartuta lortu dira emaitzarik onenak; udaleko kudeaketa jasangarriagoa eginez, herritarrek begi-bistan daukate jarraitu beharreko eredua. Gainera, itxura guztien arabera, udaleko sail guztiak helburu berean inplikatzeko era bakarra da.

Herriaren ahotsa

Prozesu horretan zehar, jendearen parte-hartzea ezinbestekoa da, hasiera-hasieratik. Demokrazia parte-hartzaileagoa bilatzen da, adostasunean oinarritua. Herritarrek erabakitzen dute etorkizunean nolako herria nahi duten. Dena dela, herritar esatean ez da kaleko jendea soilik aipatzen: udaleko alkate, zinegotzi eta langileek ere parte hartu behar dute; herriko enpresa handi eta txikien arduradunei ere dei egiten zaie; herrian egon daitezkeen kultur elkarte, aisialdi-talde eta bestelako elkarteek ere parte hartzea komeni da.

● **Demokrazia**
● **parte-hartzaileagoa**
lortu nahi da,
adostasunean
oinarritua.

Parte-hartzea hainbat modutan egin daitekeen arren, ohikoena foroak egitea da. Normalean, herritar guztiak zabaltzen zaie parte hartzeko aukera, eta zenbait gizarte-talderi zuzenean egiten zaie gonbita, batez ere, gizarte osoaren ordezkari izango dela bermatzeko. Horrela, interes berezia daukatenak bakarrik ez, gainerakoak ere joatea bermatu nahi izaten da. ➔

arazi.s.coop.
Ingurumenaren alde lanean!
ingurugiro zerbitzuak
servicios ambientales

Bizkaia Kalea 11, etxepea C
Tel.: 943 83 36 41 Faxa: 943 83 30 98

20800 Zarautz
arazi@arazi.coop

Gipuzkoa
www.arazi.coop

Nolako herria, halako Agenda

Agenda 21 tokian tokiko ingurumena zaintzeko premiaren ondorioz jaio zen arren, hiru oinarri ditu: ingurumena, ekonomia eta gizartea. Eta hirurak hobetzeko egin behar izaten da lan. Dena dela, herri bakoitzaren hasierako egoeraren arabera, adostutako ekintzak oso desberdinak izan ohi dira.

Eman dezagun Europa iparraldeko herri batean bizi garela. Gizarte-gaiak aspaldidanik izan dira gobernuaren helburu nagusietako bat, eta, ondorioz, ez dago ia langabeziarik eta etxebizitza ez da arazo, baina jendeak aisialdirako kiroldegiak eta parkeak eskatzen ditu. Logikoa da, Agendaren aurrekontuen gehiengo bat ingurumena hobetzeko ekintzetan joatea.

Jar gaitezen orain beste muturrean. Demagun Rio de Janeiroko auzo txiro batean bizi garela. Seguruena, etxetik gertu haurrak jolasteko parke bat edukitzea baino beharrezkoagoa izango dugu lana eta etxebizitza duin bat izatea, eta, horregatik, Agendan diru gehiago eskaini nahiko diogu helburu horiek bilatzeari. Beraz, ingurumena hobetzea baino lehenago datoz bizi-kalitatea hobetzeko gizarte-ekintzak.

Adierazleak: neurketa-tresnak

Tokiko Agenda 21 etengabe hobetzeko, ezinbestekoa da adierazleak ezartzea. Adierazleen eginkizuna tokiko jasangarritasunerako bilakaera positiboa den ala ez neurtzea da, hein handi batean. Horregatik, herri bakoitzean adostutako helburuen eta ekintzen araberakoak izan ohi dira. Esate baterako, TA21 baten



Ingurumena, ekonomia eta gizartea ezin dira bereizi.



Agenda 21ek ez luke balio behar dotoretzeko bakarrik.

helburuen artean ur kontsumoa jaitea baldin bada go eta ura alferrik ez xahutzeko kanpaina bat egitea erabakitzen bada, herrian kontsumitzen den ur-kantitatea neurtzen da denborak aurrera egin ahala kanpainak zer-nolako eragina izan duen jakiteko; hau da, adierazleetako bat ur-kontsumoa da.

Adierazleen eginkizuna tokiko jasangarritasunerako bilakaera positiboa den ala ez neurtzea da.

Udalerriei laguntzeko, adierazle-multzo desberdinak zehaztu dira. Euskal Herrian bertan argitaratu diren adierazle-bildumen artean, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko Ingurumen-adierazleak eta IHOBERen Tokiko Agenda 21eko Adierazleak daude. Adierazle-bilduma horietatik, herri bakoitzak bereak aukera ditzake, eta aurrera eramaten ari den ekintzetara egokitu. Hala, herri jasangarria izateko gertuago ala urrunago dauden jakin daiteke.

Horregatik guztiagatik, nahitaezkoa da adierazle egokiak aukeratzea, hala, etengabeko prozesuaren norabidea egoki daiteke unean uneko egoeraren arabera. □

Agenda 21, Euskal Herrian ere martxan

Guillermo Roa Zubia
Beñardo Kortabarría Olabarria
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



Denon esku dago Agenda 21 programa garatzea Euskal Herrian.

Ez da nazioarteko goi-bilera batean sinatutako paper-multzoa bakarrik. Agenda 21 programa herriz herri zabaldu da, eta hona ere etorri behar zuen. Baina ez da leku guztietan berdin jasotzen den plana. Kasu askotan, Agenda 21 programa ez da martxan jarri beharreko ezer, lehendik martxan zegoena sustatzeko eta indartzeko proiektua da. Beste kasu batzuetan, jasangarritasunaren ideia berri eta ezezagunari erantzuteko aukera modernoa da.



Agenda 21 inplementatzen hasi den udalerrri bakoitzean proiektuak esanahi ezberdina du, tokian tokiko baliabideak eta mugak kontuan hartuta. Eta hala izan behar du, munduan ez baitaude arazo berberak dituzten bi udal.

● Eusko Jaurlaritzaren ● estrategia izan da hasieran udalerrri batzuekin saioak egitea, eta, gero, beste batzuetara zabaltzea.

Agenda 21 programaren hiru oinarriak ingurumenaren integrazioa, herritarren parte-hartzea eta prozesuaren jarraipena direnez, gobernuek hirurei erantzuteko moduko prozedurak antolatu dituzte. Herritarren parte-hartzea jo dute garrantzitsutzat, demokraziaren ekintza berezia baita ezaugarri hori; ohiko ordezkari politikoek erabaki guztiak hartu ordez, Agenda 21 programak herritar guztien inplikazio-maila bat izatea proposatzen du parte-hartzearen bitartez.

Ekologia-oinatza

Zenbateko lur-eremua behar dugu gure bizimoduari eusteko? Kalkulua egin, eta lortzen duzun emaitza ekologia-oinatza da. Norberak bere bizitzaren datuekin egin dezake kalkulua; lurraldeka ere egin daiteke. Horretarako, baliabide ekologiko guztiak kuantifikatu behar dira, naturala barne. Lurralde batean lurra ekoizten duena nahikoa bada han bizi direnen bizimoduari eusteko, lurralde horretako bizimodua jasangarrizat har dezakegu. Euskal Herriko eta, oro har, mendebaldeko herrien ekologia-oinatzak kalkulatu gero, nabaria da jasangarri izateko gauza asko aldatu behar ditugula.

Euskal Autonomia Erkidegoan

Arabian, Gipuzkoan eta Bizkaian, gehienbat Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak bultzatu du programa, betiere, aspalditik lanean ari ziren erakundeekin eta udalerrri bakoitzean parte nahi izan duten guztiekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Agenda 21 programa ez da leku guztietan batera martxan jarri. Eusko Jaurlaritzaren estrategia izan da hasieran udalerrri batzuekin saioak egitea, eta, gero, udal horietako eskarmentuarekin, beste batzuetara zabaltzea. Bigarren urrats horretan parte hartzen dutenak eskualde bereko udal-taldeetan daude antolatuta. ➔



G. RDA

N. REVENTERIA

Hirigintza programaren esparru garrantzitsua da gure herrietan.

Ezkio-Itsaso

Babeslea

**Gipuzkoako Goierrin, Donostiatik 54 kilometrora;
21 kilometro karratuko azalera, 568 biztanle.**



B. KORTABARRIA

2002ko urrian Urola Garaiko Udaltalde 21 sortzeko hitzarmena sinatu zen. Hitzarmen horretan, besteak beste, Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalak dira partaide. Jasangarritasunaren printzipioa, beraz, udal-ikuspegi galdu gabe, eskualdean ezarri nahi da.

Hitzarmen hori sinatu aurretik, udalerrri bakoitza bere bidea eginda zegoen. Legazpiko Udalak 1998ko ekainean hasi zuen bere ibilbidea; gainerakoek, berriz, 2001eko abenduan. Hortaz, Agenda 21i dagokionez, Legazpi beste udalerrriak baino aurreratuago dago. Hala ere, herri txikiagoa izanik eta duela gutxi osatutako udalerrria izanik, Ezkio-Itsasoren kasua aipagarriagoa izan liteke.

Ezkio-Itsasok 2002ko apirilean sinatu zuen Aalborg-eko gutuna, garapen jasangarriaren aldeko konpromisoa aldarrikatzen duen gutuna alegia. Geroztik, Tokiko Agenda 21 prozesuaren bi urrats nagusiak abiatu zituen: diagnostikoa edo herriaren egungo egoeraren argazkia egitea batetik; eta herriaren etorkizuna eraikitzen lagunduko duen ekintza-plana diseinatzea bestetik.



B. KORTABARRIA

Diagnostikoa dagoeneko bukatuta dago, eta ekintza-plana jorratzen hasita. Diagnostikoak, udalerrriaren argazkiak, ustekabe bat baino gehiago ekarri die Ezkio-Itsasotarrei. Diagnostiko horren arabera, Ezkio-Itsasok gaur egun duen erroka nagusia gazteak herrian gertzea da. Izan ere, 1980ko hamarkada arte Ezkio-Itsasok populazioa galdu zuen.




B. KORTABARRIA

Urte horietatik aurrera, populazioak goranzko joera hartu zuen, gaur egungo 568 biztanleetara iristeraino. Etxebizitzak promozionatu izanak eragin du udalerrri honetako populazioaren gorakada; ez enpleguak. Gazteak herrian geratzeko, baina, aurrera begira zailtasunak sumatzen dira: batetik, etxebizitza prezio duinean eskuratu ezina eta, bestetik, baserriaren bideragarritasun ekonomiko eza eta nekazaritzaren gainbehera.

Ezkiok eta Itsasok administratiboki egitura bakarra izateak ez dirudi eragin handirik izan duenik. Izan ere, egindako elkarretaratze-ahaleginek ez dute lortu herri bakarraren sentimendua piztea. Eskola-zerbitzuaren antolaketak badu zerikusirik egoera horrekin. Herriko haurrek ez dute 0-3 bitarteko zerbitzurik herrian bertan, eta zaharragoak gazte-gaztetatik bereizten dira: batzuk Zumarragara eta besteak Ormaiztegiara. Sakabanaketa txiki-txikitatik, beraz.

Egindako diagnostikoak dioenez, euskararen erabileran gertatzen ari den atzerakadak ere kezka sortu du eta ekintza egokiekin erantzun beharra ikusi da. Arrazoiak bi izan daitezkeela uste da: euskaldunen axolagabekeria eta etorkinaren ugartzea.

Agenda 21en ikuspegi nagusia ingurumenari dagokio, jasangarritasuna horrekin lotzen du jende gehienak, eta hor arazo ugari ditu Ezkio-Itsasok, uste baino gehiago: uraren hornikuntza-sarearen egoera txarra dela eta, ur-galera itzelak ditu herriak. Diotenez, erabiltzen den uraren % 49,8 ez da kontabilizatzen. Zaborraren ekoizpena gora doa etengabe, eguneko eta biztanleko 500 gramo.



B. KORTABARRIA

Bestalde, lurraren antolamenduari loturiko arazoak ez dira txantxetakoak, batez ere, goi-mailako planeamendutik datozenak kontuan hartzen badira. Hor daude, besteak beste, AHTren proiektua eta Lurralde Plan Partzialak industria ezarpenetarako aurreikusten duen eremua; herriaren etorkizuneko lurzoru-erreserba kolokan jar dezakete horiek.

Ezkio-Itsasoren argazkiak osagai gehiago ere baditu, baina aipatutakoak dira nagusiak. Orain argazkia ondo aztertzen ari dira, laister ekintza plana onartu eta lehenetsunak jartzeko. Beraz, datorren urtean hainbat ekintza martxan jartzea espero da, etorkizuna biziagoa izan dadin.



● **Jasangarritasunarekin**
 ● **zerikusia duten**
proiektu 'zaharrak'
egokitu egin dira.

Lehen urratsa udalerrri gutxi batzuekin hasi zen; udal horiek Agenda 21 programatik kanpoko hainbat proiektu garatzen ari ziren jasangarritasunaren, edo, gutxienez, ingurumena babestearren ildotik; beraz, kasu batzuetan, proiektu 'zaharrak' programa berriari egokitu besterik ez zuten egin behar izan prozesuarekin hasteko. ➔




G. ROA

Herri bakoitzak bere ezaugarrietatik abiatu behar du Agenda 21 programan.

Debarreneko Agenda 21.
Etorkizuneko apustu segurua.

Garapen jasangarriaren bidean guztiok daukagu ardura eta Debarreneko udalok elkarrekin dihardugu lanean emaitza hobek lortzeko.

- **Eko Astea.** Herritarrei Agenda 21i buruzko informazioa helarazteko bidea.
- **Autorik gabeko eguna.**
- **GAP** programa. Debarreneko biztanleok eguneroko ohituretan ingumenarekiko errespetu handiagoarekin joka dezagun.
- **Tokiko Eskolako Agenda:** Ikastetxeak Agenda 21en partaide aktibo bihurtu nahi ditu, bai ikastetxean bertan eta bai herrian.



- Onartu berri da Debarreneko Agenda 21eko **Ekintza plana**; beraz, une honetatik aurrera, ekintza-plan hau gauzatzea izango da erronka.

Horretarako, ezinbestekoa da bailarako biztanleen partaidetza aktiboa. Eman izena gure Foroan. Zure iritzia garrantzitsua da.

Informazio gehiago 943 820110

Debegesa
 Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarteak
 Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba





G. ROA

Baliabide naturalak ondo ustiatzea da hainbat herritako lehentasuna.

● EAEn hamasei udalerrri hasi ziren programarekin

Ofizialki, lehendabiziko saioak egin dituzten udalak Udalsarea 21 izeneko sareko kideak dira. Guztira hamasei udalerrri osatzen dute talde hori: hiru Araban, zortzi Gipuzkoan eta bost Bizkaian. 2002ko abenduan sortu zuten, Gasteizen egindako ekitaldi batean.

Alonsotegi

Bizkaian, Barakaldo ondoan eta Bilbotik oso gertu; 20 kilometro karratuko azalera. 2.700 biztanle.

Bizkaiaiko udalerrri hau 1999tik ari da Agenda 21ekin lanean. Izan ere, Alonsotegiko egoera orokorrari buruzko hausnarketa egin ondoren, azpiegiturak eraikitzeke, ingurumena babesteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko biderik egokiena Agenda 21 zela erabaki zen orduan. Hurrengo urtean, Aalborg-eko Gutuna sinatzeaz gain, udalerrriaren Ingurumen Kalitatearen Ikuskaritza egin zen. Udalerrriaren beharrak eta lehentasunak zehazteko, uraren kudeaketa, hondakinak, zarata, jarduera-baimenak, etxebizitza eta abar aztertu ziren. Azterketan, udalerrriak hainbat alorretan zituen indarrak eta ahuleziak identifikatu ziren.



ALONSOTEGIKO UDALA

Adibidez, alor horietako bat Udalaren kudeaketa eta antolaketa izan da. Nabaria da erabakiak hartzeko orduan Udalak baduela ingurumena kontuan hartzeko jarrera, baina, aldi berean, langile eta baliabide gutxi ditu bere esku egon daitezkeen ingurugiro-gaiei aurre egiteko. Kadagua ibairekin zerikusia duten hainbat gai ere agertzen dira Alonsotegin egindako diagnostikoan. Izan ere, ibaia bideratzeko eta ingurua berreskuratzeko proiektua badu Udalak, baita kontrolik gabeko zabortegiak identifikatzeko plana, eta andeatutako lurak berreskuratzeko ere. Ibaia bera, baina, uholdeetarako arriskugunea izan daiteke, eta hainbat proiektu handik –Kadaguako korridorea, adibidez– lurzoru askoren erabilera aldatzea ekarriko du. Besteak beste, uraren gehiegizko kontsumoa, hondakinen gaikako bilketaren gorabeherak, kutsadura eta zarata agertzen dira udalerrri honetan egindako azterketan.

Azterketa bukatu eta gero, urrats berriak eman ziren prozesuan. Urrats nagusia



diagnostikoan oinarritutako ekintza-plana diseinatzea izan zen, udalerrriaren hasierako egoera kontuan hartuta eta jasangarritasun-printzipioetan oinarrituta, ekintza-estrategia zehaztea. Horrela, 2002an, udalerrriaren egoera hobetzeko 10 programa jarri ziren abian, helburu eta ekintza zehatzekin. Estrategia zehaztearekin batera, jasangarritasun-adierazleak hautatu zituzten, Alonsotegiko ingurumen-egoeraren bilakaera ebaluatzeko adierazleak. Horien bidez, hartutako neurrien eraginkortasuna egiaztatu nahi da, prozesuaren segimendua egin.



Hamasei herri horietako eskarmentua jaso ondoren, beste toki batzuetan ere jarri zen martxan Agenda 21 programa. Kasu horretan, taldekako antolamendua- ren eskutik, beste askok hartu zuten parte programan. Beraz, abiapuntu ezberdina izateagatik, udal-talde horien estrategia ezberdina zen aurrekoenaren aldean. Eskualdeka bildu ziren taldeak plana elkarrekin garatzeko, eta geroztik horrela ari dira lanean.

Alde batetik, inguru bateko herri guztiek egin behar diete aurre lurralde horrekin zerikusia duten arazoei, eta, beraz, taldean diagnostika eta trata daitezke arazo horiek. Horrez gain, taldeak babes ekonomikoa eta baliabide batzuk eskain diezazkieke kide guztiei, eta, modu horretan, udalerrri txikienek ere har dezakete parte eskualde horretako proiektu guztietan. ➔



N. REMENTERIA

Garraio publikoak ere toki berezia izango du Agenda 21 programan.



ALONSOTEGIKO UDALA

- Uraren kontsumoa gutxitzea, eguneko eta biztanleko 290 litrorira iritsi arte –450 litrotik gorakoa da egun-. Horretara iristeko, etxeetako ur-kontsumoaren jarraipena egingo da, eta kontsumoa bera izango da adierazle garbiena.
- Saneamendu-sarea hobetzea eta udalerriko etxebizitza guztietako ura araztegiara bidaltzea. Helburu hori lortzeko, ur-ihesak aurkitu eta kontrolatzeko plana jarri da abian. Helburura hurbiltzen ari direla ikusteko, araztegiara ura bidaltzen duten etxebizitzaren kopuruari begiratu beharko zaio.
- Lantegietako isurketak kontrolatzea eta guztiak baimendutakoak direla ziurtatzea. Horretarako, ibaiko eta erreka- etako uraren analisiak egingo dituzte,

Esate baterako, programetako bat Kadagua ibaiaren eta errekaen poluzio-maila hobetzea da. Urteak joan urteak etorri, Kadagua ibaiak lantegietako eta etxeetako hondakin guztiak jaso ditu. Azken urteotan egoera apur bat hobetu den arren, oraindik araztu gabeko ur ugari joaten da zuzenean ibaira. Arazoa konpontzeko, Ur Kontsorzioa ur zikinak Galindoko araztegiara eramango dituen kolektorearen proiektua lantzen ari da. Egoera hobetzeko programa jakin horretan, honako helburu hauek jarri dira Alonsotegin:



ALONSOTEGIKO UDALA

Babeslea:

Alonsotegiko Udala



ALONSOTEGI ELEIZATEKO UDALA

eta isurketak egiteko baimena duten enpresen kopuruak adieraziko du egoera nola dagoen.

- Uraren kalitatea kontrolatzea nekazal eremuetan eta iturburuetan. Kalitatea bermatzeko, kolektorea egingo dute, eta iturburuetan egindako analisiak izango dira horren adierazle.

Ibaiaren eta errekaen poluzio-maila hobetzeko programa bezala, beste bederatzigarren jarri dira abian Alonsotegin, batzuek zerikusi zuzena dute ingurumenarekin, baina badira beste batzuk –hezkuntza edo ongizatea adibidez– horrekin harremanik ez dutenak, jasangarritasuna ingurumena baino gehiago baita.

Hainbat herri bildu ditu taldeetan ideia horrek, eta Agenda 21 programaren lehen urratsei ekin diete. Bestalde, talde guztiak Udaltalde 21 izeneko bigarren sare batean bildu dira jasagarritasunaren bidea jorrazteko.

● **Hamar talde hasi dira lanean Udaltalde 21 sarean, sei Bizkaian eta lau Gipuzkoan.**

Dagoeneko, hamar talde hasi dira lanean Udaltalde 21 sarean, sei Bizkaian eta lau Gipuzkoan. Talde batean herri oso ezberdinak egon arren, eskualde osoak jasozten ditu elkartearen abantailak. ➔



Hirigintza, garraioa, hondakinen kudeaketa eta beste hainbat esparru bateratu behar dira programan.

G. PROA

BIZKAIA						
Abanto	Barakaldo	Erandio	Gordexola	Lemoa	Mungia	Urduliz
Alonsotegi	Barrika	Ermua	Gorliz	Lemoiz	Muskiz	Zamudio
Arantzazu	Basauri	Etxebarria	Gueñes	Lezama	Ondarroa	Zeanuri
Areatza	Berango	Fruiz	Igorre	Loiu	Plentzia	Zierbena
Arrieta	Berriatua	Gamiz-Fika	Ispaster	Mallabia	Santurtzi	
Artea	Bilbo	Gatika	Lanestosa	Markina-Xemein	Sondika	
Artzentales	Derio	Gernika-Lumo	Larrabetzu	Maruri-Jatabe	Sopela	
Bakio	Dima	Getxo	Laukiz	Mendexa	Sopuerta	
Balmaseda	Elorrio	Gizaburuaga	Lekeitio	Meñaka	Turtzioz	
Arratia	Enkarterri	Lea-Artibai	Mungialde	Txorierrri	Uribe-Kosta	
GIPUZKOA						
Altzaga	Azkoitia	Errenteria	Itsasondo	Oiartzun	Urretxu	Zumarraga
Andoain	Azpeitia	Ezkio-Itsaso	Lazkao	Olaberria	Usurbil	
Arama	Beasain	Gabiria	Legazpi	Ordizia	Villabona	
Aretxabaleta	Deba	Gaintza	Legorreta	Ormaiztegi	Zaldibia	
Arrasate	Donostia	Hernani	Mendaro	Segura	Zarautz	
Astigarraga	Eibar	Idiazabal	Mutiloa	Soraluze	Zegama	
Ataun	Elgoibar	Irun	Mutriku	Tolosa	Zerain	
Buruntzaldea	Debabarrena	Goierri	Urola Garaia			
ARABA						
Agurain	Asparrena	Gasteiz	Lantaron			
Amurrio	Dulantzi	Gobiaran	Laudio			
NAFARROA						
Altsasu	Barañain	Egues	Montejurra	Tutera		
Antsoain	Berriozar	Iruñea	Noain	Zangoza		
Aragoiko Mankomun.	Burlata	Lizarra	San Adrian			
Atarabia	Cintruenigo	Mendialdea	Tafalla			

Agenda 21en parte-hartzen duten udalerrien eta herri-taldeen zerrenda.

Gasteiz

Arabako hiriburua; 225.000 biztanle



GASTEIZKO UDALA

Beste hainbat hiritan bezala, Gasteizen ere ari dira lantzen Agenda 21. Gainera, ekimen hori abiatu zuen estatuko lehen hiria da. Prozesuan, poluzioa, garraioak, ura, energia, lantegiak, hondakinak, biztanleen ingurumen-heziketa eta abar hartu dituzte kontuan; beste hainbat hiritan bezala. Berezitasun bat badu, ordea, Gasteizko Agenda 21 planak: Eratzun Berdea.

Eratzun Berdea Gasteizko eta inguruetako parkeek eta berdeguneek osatutako birika naturala da, hirigunetik nekazaritza eremuetara daraman tarteko paisaia. Armentiaiko basoak, Zabalganako baso-parkeak, Olarizuko inguruak eta Salburuako parkeak hiriburua inguratzen dute. Horiekin batera, aintzat hartzekoak dira hiri barruko parkeak ere: Florida, Prado, Arriaga, Gamarra, Judimendi eta San Martin. Gaur egun oraindik ez daude elkarrekin lotuta, baina, aurrera begira, hori da asmoa, natur gune horiek guztiak lotzea.

Armentiaiko basoa

Hiriaren hego-mendebaldean dagoen 1.650.000 metro karratuko erkametz-basoa. Parke honek modu naturalean biltzen ditu Eratzun berdea eta Gasteizko Mendiak. Erabat seinaleztatua dago, atsedenukuak eta iturriak ditu eta animalia ugariaren bizilekua da: hegazti harrapariak, kaskabeltzak, katagorriak eta azeriak besteak beste.



GASTEIZKO UDALA

Olarizuko parkea

Parke hau nekazaritza-eremuko lurrez inguratua dago. Hiriaren hegoaldean kokatua dagoenez, Olarizuko tontorrera igoz gero, Gasteizen, Arabako Lautadaren eta inguruko mendien ikuspegi dotorea eskaintzen du. 310.000 metro karratu ditu parkeak; zelaiz eta baratzez osatua gehienbat. Arboretoa ere badago parkean, bertako landaretzaz osatutako beirazko




GASTEIZKO UDALA

mintegia alegia, loreak eta baratza ekologikoa ikusteko toki aproposa.

Salburuako parkea

Euskal Herriko hezegunerik garrantzitsuenetarikoa da Salburuako parkea. Gasteiztik ekialdera joanda, zazpi kilometroko ibilaldia egin daiteke Salburuako urmaelak ikusiz. Hezegune gehienetan bezala, Salburuako parkeko 1.610.000 metro karratuetan fauna eta flora aberatsa biltzen da: ahateak, lertxunak, oreinak, bisoi europarrak, makalak, haritzak, liriokoak, lezkak, etab.



GASTEIZKO UDALA

Zabalganako parkea

Belardiek, urmaelek, eta erkametz-basoek osatzen dute Zabalganako natur gunea. Hiriaren mendebaldean dago, nekazaritza-eremuko lurrez inguratua, eta 890.000 metro karratu ditu. Babesleku ekologiko ezin hobea da flora eta fauna autoktonoarentzat.



GASTEIZKO UDALA



G. RDA

Jasangarritasuna sektore guztiak bateratuta lortu behar da.

Udalsarea 21 eta Udaltalde 21 elkarteen eskutik, Tokiko Agenda 21en plangintza udalerrri askotan egin da. Dena dela, bidea hasi besterik ez dute egin, kasu gehienetan diagnostikoa egiten ari baitira edo lehen urratsetan baitaude. Ez da lan erraza, jasangarritasuna ez baita ingurumenaren zaintza bakarrik; horrez gain, esparru asko aztertu behar dira toki bakoitzean, ekonomikoki garrantzia dutenak barne. Gainera, plana hasi ez duten udalerrri asko daude. Falta direnak pixkanaka bat daitezten, bidea erraztu behar da, eta horretarako denbora behar da.

Dena dela, helburua oso zabala den arren, jasangarritasuna arloz arlo azter dezakete udalek; horretarako, oraingo egoeran garrantzitsuentzat jotzen diren arloak lantzen hasi dira. Hortik aurrera, programa zabaltzen joango dira denborarekin.


Nafarroan

Nafarroan aspaldi hasi ziren Agenda 21 programa aplikatzen. Izan ere, Nafarroako Gobernuak 1998an onartu zuen jasangarritasunaren ildotik helburu berritzaileak ezar zitezkeela, eta lanari ekin zioten udalerrri askotan.

Gobernuak erabaki hori hartu baino lau urte lehenago, 1994an, Europako udal askok sinatu zuten Aalborg-eko Gutuna, hiriak jasangarri bilakatzeko estrategia zehazten duen ituna. Sinatzaileen artean, Nafarroako 50 udalerrri baino gehiago eta bi mankomunitate zeuden.

● Nafarroako Gobernuak ● 1998an onartu zuen jasangarritasunaren ildotik helburu berritzaileak ezar zitezkeela

Programari laguntzeko, Gobernuak euskarri administratibo bat prestatu zuen 93/98 Foru-dekretuaren bitartez. Handik aurrera, herri bakoitzak bere udaltxean onartu behar izan du dagokion Tokiko Agenda 21 programa. ➔



Nafarroako herri gehienak txikiak dira, eta naturari oso lotuta daude.

M.M. ELLOSEGI

Oro har, Gobernuaren estrategia lehen diagnostikoa gidatzea da. Diagnostikoa bukatuta, udalerrri bakoitzak ekintza-plan egoki bat garatu behar du, Tokiko Agenda 21en barruan. Bestalde, udal bakoitzaren egoera urtero berrikusten du Gobernuak, jarraipen errazagoa eta ahal den hainbat ekintzatarako laguntza ekonomikoa izan ditzan.

● **Nafarroako**
 ● **udalerrri gehienak**
4.000 bizilagunetik
beherakoak direnez,
baliabide ekonomiko
nagusiak lehen
sektorekoak dira.

Hasierako diagnostikoari jasangarritasun-ikuskapena deritzo; izan ere, kontzeptu horretan, ingurumena ez ezik, jasangarritasunarekin zerikusia duen atal oro sartu nahi izan dute.

Nafarroaren ezaugarri garrantzitsu bat udalerrien tamaina da. Gehienak 4.000 bizilagunetik beherakoak dira; hemezortzi bakarrik dira hori baino handiagoak. Beraz, herri nafarren baliabide ekonomiko nagusiak lehen sektorekoak dira. Sektore horrek behera egin ahala, Iruñea eta inguruko herriak handitzen ari dira, herri txikiak ez baitute beste aukera askorik eskaintzen.



ARTXIBOKOA

Basogintza baliabide naturalekin zerikusia duen jarduera garrantzitsuena da herri askotan.



Gobernuak ahaleginak ari dira egiten programa herritar guztiei zabaltzeko.

G. R0A

Udal askok jarri dituzte martxan Tokiko Agenda 21 programak Nafarroan. Eta Euskal Autonomia Erki-degoan gertatzen den bezala, mankomunitate bereko herri batzuk taldetan bildu dira plana elkarrekin garatzeko.

Agenda 21 programa aplikatzen aitzindari Iruñea, Tafalla eta Cintruenigo izan dira.

Hiru horien artean, Cintruenigo izan da adibide nabarmena, hango industria nagusiaren hondakinei irtenbide jasangarria eman baitio. Cintruenigon alabastroaren industria izan da nagusi urteetan. Baina industria horrek alabastro-hautsaren oso kantitate handiak sortzen ditu, eta hondakin horiek metatzearen arazoa larria izan da udalerrian.

Dena dela, hondakin horiek erabiltzen dituen igeltsu-industria instalatu da alabastroaren industriaren ondoan. Industria berrian igeltsua egiten da hautsetik abiatuta. Azkenik, industria berriak sortzen duen ur-lurruna atmosferara isuri beharrean, kirol-instalazioak berotzeko erabiltzen dute. Adibide horrek, Agenda 21 programak lortu nahi duen jasangarritasunaren bidea irekita utzi du Cintruenigon. □

Europari begira

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Tokiko Agenda 21 udalerrri mailakoa izaten da eta, beraz, herri bakoitzean propio garatu beharrekoa. Baina badira European neurri handi batean besteentzat erreferentzia edo adibide izan direnak.

Urtero, 1996az geroztik, saria ematen zaio Europako hiri edo herririk jasagarrienari. 1994an Aalborg-en onartutako kanpaina baten ondorioa da sari hori, eta Agenda 21 suspertu eta jasagarritasuna bultzatzeko asmoz jarri zen abian. Agenda martxan jarri duten udalerrien artean banatzen da, eta aurten hiru hiri izan dira sarituak: Heidelberg (Alemania), Ferrara (Italia) eta Oslo (Norvegia).

Egia esan, Europa osoan asko dira Agenda 21 sinatu duten herri eta hiriak. Jasagarritasunaren alde egin dute; hori sinatu dute bederen. Baina denak ez dira hasi jasagarritasun-plana diseinatzen. Are gehiago, oso gutxi dira diseinatutako plana martxan jarri dutenak. Europako hiri edo herririk jasagarrienaren saria jaso dutenak dira horietako gutxi batzuk, eta bakoitzak bere hiriarri egokitutako plana diseinatu du:

Heidelberg-en, esaterako, berebiziko ahalegina egin dute herritarrekin elkarrizketa-bide iraukorrak lortzeko. Ikastaroak, bilerak eta tailerrak egin dituzte ehun



erakunderekin baino gehiagorekin, eta denek hartu dute parte hiriaren Garraioaren Garapen Planaren sorreran. 2002an hasi ziren Agenda 21 gauzatzen, eta dagoeneko lortu dituzte hainbat aldaketa: hondakin industrialak % 72 murriztu dira eta etxeetako hondakinak % 42. Gainera, energia-konsumoa % 30 murrizteko plana diseinatu dute, eta elektrizitate-produkzio garbiagoen erabilera sustatzen hasiak dira.

Ferraran ere, garraio-bide-plan egokia diseinatzeko ahalegin handia egin dute. Dieselarekin eta elektrizitatearekin dabilzan autobus hibridoak erabiltzeko beharra azpimarratu dute, eta bereziki bizikletaren erabilera sustatzekoa. Gainera, garapen jasagarria hiritar guztien ardurara izanik, industriako sektore pribatuarekin bildu dira behin eta berriz, eta horiekin agendaren ezarpenean lanean arituko diren elkarteak sortu dituzte. Planaren garapenaren ebaluzio-prozesuan erabiltzeko, ingurunearekiko erantzukizun handia eskatu eta zergak ezarri dituzte Ferraran.



Oslo hiri erabat desberdina da. Basoez, mendixkez eta fiordoez inguratua dago erabat. Hiria inguratzen duen lurraren bi heren babestutako baso, parke eta aintzirak dira. Lur horietan daude Norvegiako landare- eta animalia-espezieen % 30, eta, hiriko biodibertsitatea babesteko, plan berezia garatu behar izan dute. Esaterako, zortzi ibaiek zeharkatzen dute hiria, eta ahalegin

● Asko dira European Agenda 21 sinatu duten herri eta hiriak; diseinatutako plana martxan jarri dutenak, ordea, gutxi.

berezia egiten ari dira horiek ez poluitzeko. Izatez, estazio hidroelektrikoak ugari erabiltzen dituzte, eta hiriko gasen igorpen-maila txikian nabari da energia sortzeko metodo ez-poluitzaile horien erabilera. Beste datu esanguratsu bat: garraio publikoaren % 35 trenbide bidezkoa eta elektrikoa da gaur egun.



ARTXIBOKOA

Europako Hiririk Jasangarrienaren Saria jaso duten hiri gehienak egungo garraioarentzako alternatibak bilatzen ari dira. Autobus elektrikoak dira alternatiba horietako bat.

Badira, horiez gain, beste adibide interesgarri batzuk ere. Hannover-en, adibidez, berdintasun soziala bultzatzeko ekintza ugari bideratzen ari dira. Pobrezia-maila murrizteko ahalegin berezia egiteko asmoa dute, lanpostu berriak sortuz, batetik, eta biztanle guztiek lotarako ohea izango dutela ziurtatuz, bestetik. Bide beretik, dinamika demografikoari ere so egin diote, superpopulatutako auzoei irtenbidea eman nahian. ➔

■ Europatik kanpo

Rio de Janeiroko lehenengo bilera hartan herrialde txiroak laguntzeko konpromezua hartu bazen ere, hainbat herrialdetako eze-gonkortasun politikoak, baliabide teknologikoen eskasiak eta nekazal girotik hirietara eman den migrazio handiak Agendaren garapena zaildu dute. Horietako askotan, ekonomia baliabide naturalen esportazioan oinarrituta dago, eta horrek ere zaila egiten du garapen jasagarria. Hala eta guztiz ere, bada adibide interesgarriak.

Mexikoko Queretaro estatuan, esaterako, Sierra Gorda proiektua jarri zen martxan. Milaka ekintza txiki sustatu eta antolatu ditu honek. Saneamendu-sareen hobekuntza eta hezkuntza izan dira helburuetako batzuk, eta hogeita

hiru mila pertsonak baino gehiagok hartu dute parte ekintzetan. Eskulanez zein diruz lagundu dute, eta proiektuak bideratzeko ahalmen ekonomiko nahikoa lortu dute horrela.

Baina Agenda 21en lehentasunak desberdinak dira herrialde batetik bestera. Herrial-

derik pobreenetan ongizate soziala eta ekonomia izaten badira egoera gaitzena bizi duten alorrak, aberatsenetan ingurumena bera izaten da. Australian, adibidez, gehiegizko turismoa, nekazaritza intentsiboa, deforestazioa eta desertifikazioa dira arazorik larrienetakoak. Eta arazo horiei galera ekonomikorik gabe aurre egiteko

estrategia berezia garatu du Australiako Estatistika Bulegoak: basoen, lurraren eta zorupearen natur abantailak eta balio ekonomiko zehatza kalkulatu ditu. Zentzuzko erabileraren eta luzean izango duten erabilgarritasunean oinarritu da, baina alde batera utzi ditu dirurik ematen ez duten ingurumen-balioak.



ARTXIBOKOA

Herrialde askotan, gehiegizko turismoak eragotzi egiten du garapen jasagarria. Ez da Europatik atera behar horrelako adibideak aurkitzeko.

Bizikletaren erabilera sustatzea oinarritzkoa bihurtu da hiri europar gehienetan, poluzio-maila murrizteko eta kirola egitera bultzatzeko.



ARTXIBOKOA

Giza osasuna hobetzeko programak ere aurrera eramaten hasi dira Hannover-en. Helburu garbia dute: hiritarrek ez dezatela ulertu osasuna ebakuntzen bidez lortzen den zerbaiten modura. Gaixotasunei aurre hartu behar zaiela azpimarratu nahi izan dute, hiriko poluzioa murriztuz, adibidez. Giza osasuna errespetatzen duen ingurunea behar dutela ulertarazi nahi izan diete; airean, uretan, janarian, lurrian eta ekosistemetako beste hainbat osagaietan izan daitezkeen substantzia poluitzaileak ez duena, alegia.

Tokiko Ekintza 21

1992an Agenda 21 hitzartu zenetik eta tokiko agendak garatu direnetik urrats batzuk eman badira ere, erronka garbia du Agendak bere bigarren hamarkadan: urte hauetan garatu diren estrategiak eta planak gauzatzea.

● **Hiritarrak gutxiago**
● **gaixotzeko,**
poluzio-maila
murriztu nahi dute
Hannover-en.

Hori dela eta, pasa den urtean Johannesburgon, Hego Afrikan, Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Goi-bilera egin zen, eta han erabaki zuten Agenda 21en bigarren hamarkadako goiburua zein izango den:

Josep Bou: "Estrategiatik ekintzara pasatzeak du lekua"



Josep Bou Kataluniako Agenda 21eko Idazkaritza Teknikoaren koordinatzailea da. Alor honetan esperientzia handia du, une honetan Europar mailan Agenda 21 gehien martxan jarri dituen herrialdea baita Katalunia. Zehazki, 234 dira Agenda ezarri duten udalerririk, % 25 alegia. Eta Bartzelonako Diputazioak Europako Hiri edo Herririk Jasangarrienaren saria jaso zuen 1999an.


Zein egoeratan dago Agenda 21 Katalunian?

1992 eta 1997 bitartean, oinarri kontzeptualak ezarri ziren eta sektore-politika garrantzitsuenen planak garatu ziren. 1998tik aurrera, Garapen Jasangarriko Estrategia Katalana diseinatu eta definitu da, eta orain hasiko gara implementazio estrategikoarekin. Agenda 21 bera Kataluniako Gobernuko estrategia orokor bat bihurtu da horrela, eta garapen jasangarriaren bide horretan 10 helburu nagusi finkatu ditugu: gobernatze egokia, gizar-tearen kohesioa eta identitate, ekonomia eta bizikaltate, ekoizpena eta kontsumoa, baliabideen kudeaketa, lurraldearen plangintza, merkantzien eta pertsonen mugikortasuna, klima-aldaketaren aurkako borroka, biodibertsitatearen zaintza,


eta, azkenik, lankidetzeta eta elkartzasuna. Izan ere, gure herrian jasangarritasunaren kultura erroto nahi dugu, eta funtsezkoak iruditu zaizkigu garapen ekonomikoa, pertsonen ongizatea eta ingurunea zaintzea.

Agendaren garapenean esperientzia handia duzue. Zeintzuk dira aurkitu dituzuen mugarik handienak?

Gurea eredu berezia da, izan ere, elkarren osagarri diren bi ekintza-maila landu ditugu: Tokiko Agendaren bidezko



ARTXIBOKOA




ARTXIBOKAK

Oslok bereziki zaindu beharreko biodibertsitatea du, eta, horretarako, plan berezi bat garatu du. Horri esker eskuratu du Europako saria.

Tokiko Ekintza 21. Hiri bakoitzak garatu duen plana ahalik eta azkarren martxan jartzeko sustatuko du, izan ere, hitz hutsetan geratzeko arriskua du Agendak.

Hain zuzen ere, hil honetan bertan izango da, Atenasen, honi buruzko batzar nagusia. “Tokiko Ekintza 21: Tokiko Gobernuak Garapen Jasangarria Inplementatzea” izendatu du ICLEIk.

Batzarrean hainbat jasangarritasun-proiekturen adibide praktikoak aztertuko dituzte, esperientziak elkar trukatzeko eta ekintza-planak etengabe gauzatzeko eratu beharreko mekanismoak aztertzeko. Baina bestelako ideiak ere landuko dituzte. Esaterako, gutxitan aipatzen den arazoa: nola eragiten duten agenda orokorrek tokiko agendetan, eta zein funtzio izan beharko luketen tokiko ekintzek herrialdearen politika orokorretan. 

asuna orain”



ARTXIBOKA

eta estatu eta udalen maila berean jokatu ahal izan beharko luketela nazioarteko foroetan. Horrexegatik sustatu dugu, Euskal Herriarekin eta beste herrialde batzuekin batera, jasangarritasunaren aldeko eskualdeen nazioarteko sarearen sorrera.

Dena den, zailtasunik handiena garapen jasangarriaren hiru ardatz hauek uztartzea izan da: ekonomikoa, ingurumen-mailakoa eta gizarte-mailakoa.

Herritarren parte-hartzea funtsezkoa da prozesu honetan. Praktikan arazo bihurtu al da parte-hartze horrekin dagoen menpekotasuna?

Ez, ez du zertan arazoa izan. Are gehiago, gure ustez behar-beharrezkoa da parte-hartze hori, marko estrategikoaren definizioan zein garapenean gainera. Hortaz, parte-hartzea indartu beharra dago. Eragile guztiei eman behar zaie parte hartzeko aukera.

Zuen esperientzian oinarrituta, beraz, oraindik baliozkoa da Agenda 21en eredia?

Gure kasuan, Katalunian behintzat, baliagarri izan zaigu, eta oraindik ere baliagarri izaten jarraitzen du. Izan ere, estrategia guztiz irekia da. Uneoro egokitu behar da unean uneko egoerara, beti belaunaldi berrien ongizatea ziurtatzeko.



ARTXIBOKA

Dena den, estrategiatik ekintzara pasatzeak lehentasun osoa izan beharko luke hemendik aurrera. Horretarako sortu dira Ekintza 21 eta antzeko programak.

udalerrri-mailako jarduera, batetik, eta Kataluniako Agenda 21en bidezko jarduera orokorragoa eta zabalagoa, bestetik. Bide horretan, aurkitu dugun mugarik handienetakoa da garapen jasangarriaren gaian, herri gisa nazioarteko erakundeetan dugun ordezkaritza eskasa. Horri aurre egin behar izan diogu, uste baitugu eskualde-mailako gobernuak zeregin funtsezkoa dutela gai honetan,